

80. informazio-buletina 2026ko LEHEN HIRUHILEKOA BERRIAK

TAU 2026 KANPAINA

Aurten, Cochabambako (Bolivia) "Bus de la armonía y del Buen Vivir" **proiektuarekin** "**Kalitatezko hezkuntza mundua mugitzeko**" lelopean, 4. GJHari buruz arituko da. Donostia Atoxa, Zarautz, Iturrama eta Tolosako parrokiek Garizuma Elkartasun Keinu gisa egin diote ekarpena proiektuari. Materialak webgunean daude eta lankideei bidali zaizkie posta elektronikoz otsailaren 12an.



SOS ARRAZAKERIA MARTXA

TAUk bat egin du martxoaren 22an Trintxerpe eta Donostia artean SOS Arrazakeria Gipuzkoak eta beste erakunde batzuek antolatutako arrazakeriaren aurkako martxarekin.

Aurten, leloa "**Erroldarik gabe ez naiz existitzen**" izan da, erroldatzearen garrantzia eskatzeko, gure udalerrietan bizi diren pertsona guztien oinarritzko eskubideei atea irekitzen dien giltza gisa, bereziki pertsona migratzaile eta kalteberei.

Informazio solidarioa

TAUfundazioaren 2025eko txostena

Webgunean duzue TAUren 2025eko memoria; bertan ikus dezakezue Ipar/Hego Elkartasun eta Lankidetzarekin jarraitzeko egindako lan guztia. Lan horrekin errealitate eta espazio bidezkoagoak, etikoagoak eta indarkeriarik gabekoak eraikitzen saiatzen gara, tokiko beste erakundeekin lankidetzat estuan eta erantzunkidetasunean.

Hemen, Iparraldean, Gizartea Eraldatzeko Sentsibilizazio- eta Hezkuntza-Lanak, kontsumismora eta pertsona pobretuenen ahanzturara bultzatzen gaituen indibidualismo eta filosofia materialistatik, irtetea du helburu, hemen gure bizimodua aldatzeko premiaz jabetzeko.

Guztiok familia eta berdinak garela azpimarratuz; eskubide berberekin, gure arraza, hizkuntza, erlijio edo ideologia aniztasunetik haratago, gure espiritualtasunean eta frantziskotarren bizitzarako aukeran hain agerikoa den Anaitasun unibertsalaren agerpenean laguntzeko modu on gisa.

Oso gogoan izanik Fratelli Tutti entziklikak dioena: "**Mundua guztiontzat existitzen da, gizaki guztiak duintasun berarekin jaiotzen baikara lur honetan. Kolorearen, erlijioaren, gaitasunen, jaiolekuaren, bizilekuaren eta beste hainbaten arteko desberdintasunak ezin dira lehenetsi, edo ezin dira erabili, batzuen pribilegioak guztion eskubideen gaintik justifikatzeko**".

2025. urte honetan, egunerokotasunean lan egin dugu, mundu justuago eta anaitasunezkoago bat eraikitzeko etsi gabe; giza familia osoarentzat Guztion Ongia ikusgarriagoa izango den mundu bat, mundu osoan ditugun egoera zailak izan arren.

Gure lehentasunekin jarraituz: **Hezkuntza, Osasuna, Garapena, Eraldaketa soziala eta Eragina.**

Hegoaldeko proiektuak 2025 honetan hasi 22; eta 15 jarraipena izan dute. Guztira 37 proiektu daude Bolivia, Ekuador, El Salvador, Mexiko eta Palestinan banatuta.

Bolivian 19 proiektu garatu dira eremu hauetan: **6 Garapen Ekonomikoan; 1 Gizarte Zibila Indartzeko; 7 Generoan; 2 Osasunean eta 3 Hezkuntza-Prestakuntzan.** (Bidalitako funtsak: 1.016.350 €)

Ekuadorren 1 Osasunean. (Bidalitako funtsak: 12.032 €)

El Salvadorren 10 proiektu: 3 garapen ekonomikoan; 4 gizarte zibila indartzean; 1 generoan eta 2 osasunean. (Bidalitako funtsak: 621.767 €)

Mexikon 3 proiektu, laguntza humanitariokoak. (Bidalitako funtsak: 80.060 €)

Palestina 3 proiektu: 2 Laguntza Humanitariorako eta 1 Osasunean. (Bidalitako funtsak: 18.030 €)



NAFARROAKO AFRIKA BEHAR BEHARREZKOA PARTZUERGOKO



Urtarrilaren 14an bilera izan genuen Proclade Yanapayrekin, 2026an partzuergoaren buru izango den GGKE honi traspasoa egiteko. TAUren aurreko urteetako proiektuaren formulazio-, egikaritze-, jarraipen- eta justifikazio-dokumentazioa bidali zaie.

Otsailaren 11n, 2025ean egindako jardueren ebaluazio bateratua egin genuen, bai eta 2026rako programaren plangintza ere.

Otsailaren 23an TAU eta Proclade Yanapay Iruñako Udaleko Kultura arduradun den Javier Manzanosekin bildu ginen, Proclade 26. edizioaren arduradun gisa aurkezteko eta aurtengo **Civivox Condestable erakusketaren** dosierra (**ELLAS, Sahel garaikideari buruzko kontakizun bisualak**) eramateko.

AFRIKA BEHAR BEHARREZKOA GIPUZKOA



Urtarrilaren 19an, partzuergo gisa bildu ginen 2026an Donostiako Udalak eta GFA finantziatuta gauzatu beharreko programa planifikatzeko.

Otsailean, Afrika Behar Beharrezkoa Gipuzkoa udaberriko programaren gauzatzea zehazteko gestioak eta kontaktuak egin ditugu.

Nagusiak Las Tres Fronteras erakusketa antolatzea Pepe Naranjo eta Juan Luis Rodekin batera, Baobab dantza ikuskizun baterako, Aieteko kultur etxea erakusketa aretorako eta Zarauzko Udaleko ekintzatarako, besteak beste.

Otsailaren 11an, bilera/elkarriketa Mihiret Zarate Programaren koordinatzaile berriarekin, sei hilabeterako, lanaldi erdian izango dena. Eta aurten Partzuergoak Afrika Behar Beharrezkoa Gipuzkoak webgunea izango du.

EL SALVADORREKO PROIEKTUARI LOTUTAKO IPAR/HEGO TRUKE BIRTUALAK - GFA 2024



Gipuzkoako Foru Aldundiak 2024an finantzaturako "Elikagaien subiranotasuna, ekoizpen, kontsumo eta merkaturatze eredu osasungarri baten bidez, aldaketa klimatikoaren aurrean, Aguilares eta El Paisnal barrutietako emakume landatar ahaldundu eta antolatuek, San Salvador Norte udalerrian (El Salvador)" proiektuaren barruan, bi truke birtual egin ditugu hiruhileko honetan:

- **Otsailaren 19an** egin genuen lehenengoa El Salvadorreko projektuko emakume protagonisten eta Miguel Arribas "Kelo", Alekaren sortzaileetako baten artean. Aleka Euskal Autonomia Erkidegoan hazi lokalak eta ekologikoak zaindu eta merkaturatzearen alde lan egiten duen elkarte da.

Proiektuak hazi kreolak erreskatatzeko eta zaintzeko jarduerak aurreikusten dituela kontuan hartuta, ozeanoaren bi aldeetatik partekatu genuen **haziak erreskatatu eta zaintzeko gai horri buruz**.

- **Martxoaren 26an** bigarren truke birtuala egin genuen **nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen ekoizpen, merkaturatze eta kontsumoaren inguruan**. Bertan parte hartu zuten San Salvador Norte udalerriko (El Salvador) El Paisnal eta Aguilares barrutietako nekazaritza-ekoizleek eta Oiarzungo (Gipuzkoa, Euskadi) Labore kontsumitzaileen elkarteko gerente den Itsaso Larretxeak. Elkarte honek kontsumo arduratsuen aldeko apustua egiten du, tokiko produktu ekologiko bati eta osasunaren eta ingurunearen zaintzari lotuta.

2026KO DEIALDIETARA AURKEZTUTAKO PROIEKTUAK



Bilboko Udala.

Otsailaren 19an erregistratu genuen "Emakume indigena nekazarien eta hezkuntza-komunitateen ahalduztze politikoa eta ekonomikoa, eskola- eta genero-indarkeriaren aurka tokiko partaidetza eta eragina izateko Ckochas udalerrian" proiektua, **Bolivian. IPTK tokiko bazkidea.**

Irungo Udala.

Otsailaren 23an, Boliviako "Titicaca aintzira zaindu eta defendatzeko eraldaketa sozioekologikoak sustatuz, Copacabana eta Tito Yupanqui mugako udalerrietako emakume ekoizleen protagonismotik" proiekturako eskaera aurkeztu genuen, **Prodiasur tokiko bazkidea.**

Oñatiko Udala.

Martxoaren 6an erregistratu genuen, Arantzazuko Adiskideak elkartearen izenean, **Boliviako** "Sucre udalerrian, umetoki-lepoko minbizia eta nahi ez diren haurdunaldiak prebenitzeko George Duez Ospitaleko arreta ginekologikoko zerbitzuetara sartzen diren emakumeak" proiekturako eskaera. **IPTK tokiko bazkidea.**

Donostiako Udaleko Lankidetzak.

Martxoaren 30an, Boliviako "Titicaca aintzira zaindu eta defendatzeko eraldaketa sozioekologikoak sustatuz, mugako Copacabana eta Tito Yupanqui udalerrietako emakume ekoizleen protagonismotik" proiektua aurkeztu genuen. **Prodiasur tokiko bazkidea.**

Donostiako Udala, Hezkuntza Eraldaketa.

Martxoaren 31an Algipuzkoa Partzuergo gisa aurkeztu genuen "Afrika Imprescindible Gipuzkoa- Afrika Behar Beharrezkoa Gipuzkoan, 2026-2027 Programa" proiektua.

JUSTIFIKAZIO-TXOSTENAK

Nafarroako Gobernua 2025 (Sentsibilizazioa).

Urtarrilaren 19an erregistratu genuen "Saharaz Hegoaldera. Afrika Behar Beharrezkoa. 25. edizioa".

Iruñeko Udala 2025 (Sentsibilizazioa).

Urtarrilaren 23an erregistratu genuen "Saharaz Hegoaldera. Afrika Behar Beharrezkoa. 25. edizioa".

Iruñeko Udala 2025 (Laguntza Humanitarioa).

Urtarrilaren 23an erregistratu genuen "Familia kalteberen birgaitzea" proiektuaren justifikazio-txostena Belenen. **Pro Terra Sancta tokiko bazkidea.**

Iruñeko Udala 2024

Urtarrilaren 29an, Boliviako 2024ko "COMULASI industria eta merkataritza indartzea" proiektuaren justifikazio-txostena erregistratu genuen. **JPIC tokiko bazkidea.**

Kantabriako Gobernua 2024

Urtarrilaren 28an erregistratu genuen "San Pablo Tacachico barrutiko (La Libertad Norte udalerria) 4 Garapen Komunaleko Elkarteetako (ADESCOS) kide diren 200 pertsonaren (100 emakume eta 100 gizon) antolaketa-, partaidetza- eta ekonomia-gaitasunak genero-ekitatearekin sendotuz" proiektuaren azken justifikazio-txostena. **El Salvadorren. Tokiko bazkidea, Cordes.**

Iraizoz Anaiak Fundazioa 2025 (Nafarroa)

Urtarrilaren 30an "El bus de la armonía y el buen vivir 2025" proiektuaren azken justifikazio txostena erregistratu genuen Cochabamban, **Bolivian. FSL tokiko bazkidea.**

Donostiako Udala 2024

Urtarrilaren 27an erregistratu genuen **Boliviako** "Ocurí udalerrian, II. fasean, gobernantzarako eta beren eskubideak gauzatzeko emakumeen partaidetzarekin tokiko garapen ekonomiko jasangarria sustatuz" proiektuaren azken justifikazio-txostena. **IPTK tokiko bazkidea.**

Irungo Udala 2024

Urtarrilaren 29an erregistratu genuen proiektu beraren **azken txostena**, Donostiako Udalak finantzatua.

Nafarroako Gobernua 2024

Otsailaren 18an erregistratu genuen **Boliviako** "San Borja udalerrian elikagaien segurtasunerako eta ingurumenaren babeserako genero-ikuspegia duten baliabide erresilienteak garatzea" proiektuaren **azken justifikazioa. Cecasem tokiko bazkidea.**

Boliviako "Elikadura-segurtasuna eta ingurumen-erresilientzia sustatuz, genero-ekitatearekin, krisi klimatikoaren aurrean, Pocoatako Chacaya Udalerriko Ayllus indigenekin", proiektuaren **azken justifikazioa. IPTK tokiko bazkidea.**

Gipuzkoako Foru Aldundia 2023

Otsailaren 5ean erregistratu genuen "Hezkuntza inklusiboaren eta genero-ikuspegidun udal-kudeaketaren bidez genero-indarkeriari aurre egitea eta ingurumen-jasangarritasuna Ckochasen, II. fasea" proiektuaren **azken txostena. Bolivian. IPTK tokiko bazkidea.**

NAFARROAKO GGKEEN KOORDINAKUNDEA



Eragin Politikoa Batzordea

Bilerak urtarrilaren 16an, otsailaren 4an eta 24an, eta martxoaren 5ean. Bertan, hainbat gai jorratu ziren: Batzorde Iraunkorra prestatzea, Nafarroako Lankidetzaren Kontseilua; POA Eragin Politikoa eta Sareak 2026 Batzordea; Nafarroako Gobernua: Plan Zuzentzailea. Nafarroako Parlamentuaren mozioa.

2027-2031 Plan Estrategikoaren talde eragilea

Urtarrilaren 28an, talde eragilearen lehen bilera, koordinakundearen hurrengo Plan Estrategikoa egiteko. Prozesuaren kronogramari eta lehen atazari buruzko informazioa eman zen, hau da, funtsezko eragileei elkarrizketak egitea. Otsailean, Martak hiru egin zituen Koordinakundearen barneko eta kanpoko testuinguruaren diagnostikoa egiteko balioko duen informazioa biltzeko.

Martxoaren 24an, aurrez aurreko tailerra Geltokian, Plan Estrategikoa berria garatzeko. 25 pertsonak parte hartu genuen.

Esperientziak partekatuz

Martxoaren 20an Nuevo Futuro GGKEak prestatutako topaketa, El Salvadorreko bere bazkidea den "Haurren Garapen eta Giza Sustapenerako CINDE" Elkartearen bisita dela eta.

Bilera Bildurekin

Martxoaren 25ean, Bilduk burutzen duen Elkarrizketa Nazionalaren barruan, Lankidetzaren deszentralizatuaren sektorearen egungo gauzapeña, kezkak eta etorkizunerako erronkak ezagutzeko bilera.

UPNAko Finantza Etikoak taldeari laguntza

Martxoan, Nafarroako Finantza Etikoen Elkarteari, Koordinakundeak, TAUK eta beste sare batzuek osatutakoari, gizarte-garapenaren eta lurralde-garapenaren esparruan Iberus Campusaren deialdiaren barruan ekintza-talde bat eratze laguntza eman diogu. Helburua: NUPen eta beste bi unibertsitatetan taldeak sortzea da, Finantza Etikoak eta Sozialak aztertzea, hedatu eta bultzatzeko, ikerketa-proiektuak, transferentzia-jarduerak eta prestakuntza-ekintza bateratuak sortzeko.

EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEA

Gobernu Batzordea

Batzordea **urtarrilaren 8an, otsailaren 6an eta 23an eta martxoaren 5ean eta 11n** bildu da, honako gai hauek jorratzeko: erakunde-eremua eta eragin politikoa; eLankidetzaren Zuzendaritzari dagokionez; gaur egun aurre egin beharreko erronkei buruzko hausnarketa estrategikoa; Eusko Jaurlaritzaren Koherentzia Batzordearen barruko estrategia, Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko euskal Legearen aldaketa salatzeko; Koordinakundearen generoaren talde eragilearen egoera; eta abar.

Gipuzkoako Lurralde Batzarra

Urtarrilaren 27an, Gipuzkoako eragin politikari eta Euskal Agentziari buruzko berrikuntzak partekatu ziren.

Bizkaiko Lurralde Batzarra

Otsailaren 3an bildu ginen Bizkaiko erakundeak hainbat gai aztertzeko: Korrikan parte hartzeko Euskara Taldearen proposamena; Batzordearen eta lantaldeen informazioak; Gune feminista jarduerak: genero-politika eta jazarpen-protokoloa; eta abar.

Arantzazuko hausnarketa estrategikoa.

Otsailaren 26an eta 27an, Arantzazuko Gandiaga Topaguanen, gogoeta estrategikoa batean parte hartu genuen Batzordeko kide gisa, nazioarteko testuinguru beliko eta etsai honetan indarrean dagoen 2022-2030 Plan Estrategikoaren tarteko ebaluazioari dagokionez. Halaber, Euskadiko 2026-2027 GGKEen Koordinakundearen zirriborro-plana egin zen, Lurralde Batzarrekin kontrastatu beharrekoa.

Gosaria kazetariekin.

Martxoaren 24an, Bilboko Ilunion Hotelean Batzarrak antolatuta, Iñigok kazetariekin egindako topaketan parte hartu zuen, euskarazko bozeramailetza eginez. Leloa: *EUSKAL LANKIDETZA 2026. URTEAN. Eta orain zer? Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Legea onartu eta bi urtera.*

Arantzazuko Adiskideak.

Otsailaren 3an, Batzarrak 2025eko kontuak berrikusi zituen, eta 2026rako jardura-proposamena eta aurrekontua ere aztertu zituen.

Martxoaren 31n Oñatiko Udalaren kultura arloari zuzendutako diru-laguntza eskaera erregistratu genuen, Arantzazuko Adiskideak elkartearen kultur proiektuetarako, "Arantzazu Ezagutu" programako jarduerak zabaltzeaz gain.

Donostiako Udalaren Lankidetzaren Kontseilua

Martxoaren 11n, Lankidetzaren Kontseiluaren osoko bilkura, hainbat gairen inguruan: 2026ko diru-laguntzen deialdia; 2026ko laguntza humanitarioei eta larrialdikoei buruzko informazioa, etab.

Zarauzko Udaleko Lankidetzaren Kontseilua

Otsailaren 25ean, gaiak: 2026ko aurrekontuak; 2026ko diru-laguntzen deialdia; Zarautz 32 urteko lankidetzaren